

N .U .

H A M A B O S K A R I A


2001eko martxoaren 9a VI.urtea

Usurbil, 108. zenbakia




Gero eta izokin
gehiago Oria ibaian

Aizpurua



Zure mahaiia ondo horni-
tu nahi baduzu gurean
duzu aukera!

Telesforo Ardoak



Kale Nagusia, 25
Telf: 943 36 12 20

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALFA 2,4,6,8


GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA,
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.
KALE NAGUSIAN 4,6,8 eta ERREKATXIKI KALFAN 2,4,6,8

GARAGE ITXIAK, KOMUNITATEN ADMINISTRATUAZ,
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT. ALTURA BEREZIAK,
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENIZAT, TAMAÑA ETA LUZERA
DESBERDINAK, EGUNTEKO ARGIAKIN EDO KONTAGAILU
PROPIOAREKIN, KOTXEAK GARBITZEKO LEKUAREKIN

SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUAK
SARRERAK: 500.000 pezetarik. HILEKOAK: 15.000 pzt.

MENDIGAIN S.M. ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE

GARAGEN DISTRIBUZIOA




Lehenengo solairua

Bigarrenengo solairua



TXIMINIA ALTZARIAK



Poligono Osinalde
USURBIL (Gipuzkoa)
Tfn.: 943 37 09 66 Fax: 943 37 29 32

ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Christian!** Zortzi urte beteko dituzu martxoaren 11n. Muxu haundi bat zure anai, aiton-amonak eta gurasoen partez. Ea zortzi urte hauekin txintxoagoa bihurtzen zaren!



Zorionak **Xabier Sancho Sagardia!** Martxoaren 1ean bederatzita urte egin zituen gure etxeko txikiak. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.

Hona hemen edonor zoriontzeko tarteak. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: martxoaren 23an
 Ekartzeko azken eguna: martxoaren 16a

Jaiotzak

Imanol Goenaga Oyarzabal
 2001-01-31
 Kaleberri

Eneko Lopez Berlosa
 2001-03-02
 Kaleberri

Hildakoak



2001-02-24
Ignacio Eceiza Iraola
 63 urte
 Zubieta



2001-02-25
Milagros Zanguitu Larreategui
 78 urte
 Zubieta



Bai, esan

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Erzantza 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak 112
- Anbulantziak 112
- Posta Kutxa 37 32 28
- Gure Pakea 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21
- Bake epaitegia 37 23 36
- Oa farmazia 36 12 17
- Iturralde farmazia 36 33 95
- Zubietako Herri Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) 47 09 76

Udaltzaingoa ordutegia

Astegunetan

6.00/22.00

Asteburu eta iaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu
 deitu telefono honetara

943-361112

Martxoa

Astel.	Asteaz.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.
		1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarauz	Zarauz	Usurbil	Donostia
05.47	06.03	06.20	06.08	06.24	06.39
06.17	06.33	06.50	06.38	06.54	07.09
06.47	07.03	07.20	07.08	07.24	07.39
07.17	07.33	07.50	07.38	07.54	08.09
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17	08.33	08.50	08.38	08.54	09.09
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.20	12.08	12.24	12.39
11.47	12.03	12.20	12.38	12.54	13.09
12.17	12.33	12.50	13.08	13.24	13.39
12.47	13.03	13.20	13.38	13.54	14.09
13.17	13.33	13.50	14.08	14.24	14.39
13.47	14.03	14.20	14.38	14.54	15.09
14.17	14.33	14.50	15.08	15.24	15.39
14.47	15.03	15.20	15.38	15.54	16.09
15.17	15.33	15.50	16.08	16.24	16.39
15.47	16.03	16.20	16.38	16.54	17.09
16.17	16.33	16.50	17.08	17.24	17.39
16.47	17.03	17.20	17.38	17.54	18.09
17.17	17.33	17.50	18.08	18.24	18.39
17.47	18.03	18.20	18.38	18.54	19.09
18.17	18.33	18.50	19.08	19.24	19.39
18.47	19.03	19.20	19.38	19.54	20.09
19.17	19.33	19.50	20.08	20.24	20.39
19.47	20.03	20.20	20.38	20.54	21.09
20.17	20.33	20.50	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.08	22.24	22.39
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	21.09

Zer irizten?



Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.topagunea.jalgi.com/noaua/>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbietta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga, Zalao Arnaiz eta Ibon Beristain.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Azala:
Izokinak baldean otsailaren
13an Oria ibaian aske utzi
aurretik



Bion arteko errespetua da irtenbidea

Joseba Zubeldia
Txirrindularia

Otxoatar anaiak izandako istripuaren ondoren "boom" izugarria eman zaio txirrindulari eta auto gidarien arteko ikamikari. Urtean zehar honelako istripu ugari izaten dira, baina ospea duen txirrindulari baten heriotzak azaleratzen ditu txirrindulariok errepidean pasatzen ditugun arriskuak.

Guk Kostaldeko bidea hartzen dugu entrenatzera errepidera ateratzen garenean. Bi ordu egin behar baldin baditugu Zumaiara joan-etorria egiten dugu, baina entrenamendu luzeagoak egiterakoan Deba edo Azpeitia alderako bidea hartzen dugu. Usurbildik Zarautzaino Haimarrekin joaten naiz gehienetan. Bide honetan trafiko ugari izaten da, eta bide-bazterrik ez dagoenez nahikoa arriskutsua izaten da. Gu ohituta gaudenez askotan ez zaigu arriskutsua iruditzen, baina beste bide lasaigoetan ibiltzen den txirrindulariren bat gurekin etortzen denean arriskutsua iruditzen zaio.

Haimar eta biok binaka joaten gara, parez pare, eta Zarautzen beste talde batekin biltzen garenean ere binaka joaten gara. Debekatuta dagoela badakigu, baina gure burua babestearren egiten dugu. Zortzi txirrindulari goazenean binaka joaten gara. Banaka hiladan joango bagina

zortzi lagun aurreratu beharko lituzke ibilgailu batek eta hori arriskutsuagoa da. Binaka joanez gero lau txirrindulari joango bagina bezala da, eta parez pare goazenez ibilgailuek abiadura mantxotu egiten dute gu pasa aurretik.

Mota guztietako jendea topatzen dugu errepidean. Hori bai, bost ibilgailuetatik batek bozina jotzen digu. Txirrindulariok oztopo bat garela dirudi, beti gaizki goazela, eta hori ez da horrela. Jendeari errespetu haundiagoa eskatuko nioke. Bion arteko errespetua garrantzitsua da eta horretarako ezinbestekoa da guztiok edukazioa izatea. Guk ere okerrak egiten ditugu, denok ez baikara perfektuak. Hala ere, garbi dagoena da gaitzeko gehien guk daukagula, gu baikara ahulena.

Kamioia gidatzea da kamioilarien lana, beste batzuk lanera joaten dira ibilgailuarekin. Gu, berriz, errepidera entrenatzera joaten gara, hori da gure lana. Jendearentzat gu oztopo bat gara eta horrek ez du horrela izan behar. Konponbidea zein den? Bien arteko errespetua. Bide guztietan bide-bazterrak jartzea ezinezkoa da eta bidegorriak jartzea ere ez da konponbidea. Izan ere, txirrindulari profesional edo afizionatuek hor entrenatzea oso zaila dela uste dut.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Mikel Elexpe Aginaga

Ekuadorren urtebete baino gehiago egon zen hango ume abandonatuak alaitu nahian. Esperientzia izugarria izan zela aitortu digu eta orain bere egoera bestelakoa bada ere gustora joango litzateke berri Ekuador aldera.



Ekuadorrera joan zinen. Handik bueltatu zinenean bizitza guztiz aldatua zenuen, ezta?

Bai. Bi aldiz egon nintzen han. Lehenengo aldiz 1997an joan nintzen eta hiru hilabetez egon nintzen, gero urte eta erdirako joan nintzen. Gustatu egin zitzaidan esperientzia eta berriz errepikatu nahi izan nuen. Bigarren aldiz etxera itzuli nintzen bizitza erabat aldatua nuen. Ezkondua etorri nintzen.

Han ezkondu zinen orduan.

Bai. Han ezkondu nintzen zibiletik eta gero hona etorri ginenean elizatik ezkondu ginen.

Nolakoa izan zen Ekuadorren egon zinen garai hura?

Niri egokitu zitzaidan bizitza zaila zen orduan. Ja krisi handia zegoen. Ni ume abandonatuekin ibili nintzen eta gu ez ginen apenas enteratzen. Beno enteratu bai, bankuak eta itxiak egoten zirelako eta diru falta zegoelako, baina tira.

Herri txikietan ibili al zinen?

Herri txikietara joaten nintzen oihana ikustera, bertako errealitatea ezagutzera... baina gehienbat hiri handi batean egon nintzen, 150.000 biztanleko hiri batean: Lojan.

Nolako esperientzia izan zen zuretzat?

Ikasi, pila bat ikasi nuen. Umeekin ibili nintzen gehienbat eta umeek gauza asko erakusten dizkizute. Ematen duzuna baino askoz ere gehiago daukazu jasotzeko, eta esperientzia oso ona izan zen, gero errepikatu egin nuen, pentsa. Oso aberatsa izan zen eta horrelakoetan konturatzen zara benetan pobrezia noraino iristen den. Gu oso ondo bizi gaa.

Nola hartu zenuen hara joateko erabakia?

Aspaldi neukan horrelako esperientzia bat izateko

gogoia. Hirugarren mundua ezagutu eta besteei laguntzeko gogoia nuen. Garai batean, 1997an, lanean nengibilen, baina uzteko aukera izan nuen, eta udaran joatea erabaki nuen. Aukera batzuk eman zizkidaten India edo Ekuadorrera joateko eta azkenean Indiakoa atzera bota eta Ekuadorrera joan nintzen. Lagun bat utzi nuen nire lanean ordezeko modura eta bueltatu nintzen jarraitu egin nuen.

Berriz joango al zinateke horrelako zerbaitegitera?

Bai. Baina orain egoera ezberdina da, alaba eta andrearekin ez da berdina, erabakia ez dago soilik nire esku.

Zer egiten zenuten han umeekin?

Gehienbat beraiekin egon, ume horiek maitasun handia behar baitute. Goizean esnatu, jantzi, gosaria eman, haunditxoena ikastolara eramanez, besteekin jolas batzuk egin eta gero ba, jana eman, hortzak garbituarazi eta arratsaldean ekintza desberdinak egiten genituen.

Zer zen aterpetxe bat?

Bai. Jokoak eta edukitzen genituen prestatuta. Gauza beraiekin egotea zen. Gero han geundela hemengo laguntzarekin etabar telebista bat erosi genuen eta horren aurrean denbora asko pasatzen zuten.

Ze adin bitartekoak ziren umeak?

Txikiena bederatzi hilabeteekin etorri zen. Batzuk abandonatuak ziren. Gogoratzen dut aterpetxeko zuzendariarekin zakarren artean ume bat aurkitu genuela, urte eta erdi zituen. Haundienak hamaika urte izango zituen eta adin horien artean laurogeita hamazazpi ume zeuden, zein baino zein hobek...
Olatz Lasagabaster



Giltzak
kopiatzeko
ditugu!

Zapatak, Kanpinak,
Kremailerak (poltsak,
zamarrak, galtzak...)

Kale Nagusia, 2 Tel: 943 37 27 95



MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia
hemen aurkituko duzu

Udaberriko moda berria zuretzat!

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06



Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

TXOKOALDE

Iñaki Labaka



Hesiak behin eta berriz txikituz

Erroizpe elkartean martxoaren 11n bazkideek biltzar orokorra izango dute. Aurreneko deialdia hamaiketan izango da eta bigarrena, berriz, orduerdi beranduago. Bertan, zuzendaritza batzordeko kideek aktaren irakurketa egin ondoren, edukinen kontaktaren eta diruaren gorabeheraren berriak emango dituzte. Bazkideei dagozkien zenbait gai aztertu eta gero, bukatzeko, lehendakari berria izendatzeko eta nahi adina galdera egiteko aukera izango da. Ea batzar honetara deituta dauden 80 bazkideetatik gehiengoa agertzen den.

Bestalde, nik idatzitako azken kronikan, Permeidegi baserriaren parean, bihurtune arrisku-

tsu pare bat daudenez, istripu ugari gertatzen zirela eta mendi aldera eta ibai aldera babesteko dauden segurtasun hesiak ibilgailuek askotan apurtzen zituztela komentatzen nuen.

Geroztik errepideak zaintzen dituzten langileek porlana- ren bidez txukun txukun berriz zutitu zuten hesi berria, baina ez epe luzerako. Aste honetan kamioi batek jo eta bi aldeetako hesiak txikitu ditu. Auskalo

zenbat aldiz gertatu den berdina! Hemen brigada fijo bat ezarri beharko dute, txikitu ahala ostera osatzeko. Permeidegi baserrian ez dira lasai biziko, alajaina, ibilgailuren bat etxe gainera etorriko zaien beldurrez.



KALEBERRI

Eneko Harreguy



Kutxa

Urte askoan, biloba. Tori!

- Baina zer da hau?

- Zure aitona zenaren gutunak jasotzeko erabiltzen nuen kutxa. Benetan, balio handia du niretzat eta ondo erabiltzea eta gordetzea nahi nuke.

Arratsaldean iritsi zitzaion Andoniri kanpoan zituen lagun askotako baten gutuna. "Jaso dut zure eskutitza, eta zorionak bi aldiz eman beharrean nago: batetik, urteak bete dituzulako; eta bestetik, zuk desiotako kazetari lana lortu duzulako. Zorionak.". Nahiz eta amonak bezala, gutun mordoxka bat pilatuta izan, Andoniri lehen gutuna balitz bezalako ilusioa egin zion hark; urteak eta lana,

biak batera, zoriontzen zaizkiolako. Iritsi berri zitzaion eskutitz hura, txukun-txukun tolestu eta gutunazalean jaso zuen oster. Gutunak, iritsi egunaren arabera ordenatuak zituenez, azken hau azpi-azpian jaso zuen (lehen gutuna udalekutako lagun batena zen). Amonaren oparia estreinatuko zuen gero. Gogo bizia zuen eta kontu handienarekin amonak oparitutako eta hainbeste historia zuen kutxan sartu zituen. Otsaila martxo baino lehenago.(...)

Andoniri, kazetaria zen alde- tik ere, asko gustatzen zitzaion irakurtzea; eta ilunabar hartan - oraingoan nobelarik hartzeke- kutxa zahar eta bezain ballotsu hura hartu eta aspaldiko gutunak irakurtzera, gogoratzea

joan zen, eguzkia ondo sartzen zen leku lasai batera. Eguzkia ondo sartuta ere, han jarraitzen zuen irakurtzen, begiak neka-neka egin eta ixten ari zitzaizkiola ohartu zen arte. Hainbeste zituen irakurtzeko!

Hurrengo eguna lanean egin behar zuen. Ordenagailuaren aurrean jarri beharrak kentzen zizkion gogoak. Baina beste irtenbiderik ezean... Hortaz, pantaila piztu eta betazal- ertzetako makarrak kenduta lanari ekin zion. Hamaika e-mail zituen irakurtzeko zain. Baziren lan kontuekin zerikusia zutenak, baina gehienak zorion e-mailak ziren.

Aspaldian ez zen eguzkia nola sartzen zen ikustera joan. Eta kutxak hautsak hartu du.

KALEZAR

Andoni Udabe



Hausnarketak, tarteka, behintzat

Azkenaldian komunikabi-deetan jasotako berri batek bultzatu nau kronika-artikulu-iritzi hau idaztera. Askotan entzun izan dugu, azken boladan, Euskal Herriko jaiotze-tasa munduko baxuenetarikoa dela eta barne-barnean zera pentsatu dut; *nik ume ugari ikusten dizkiat, ba, gure herriko frontoi inguruan, baita Kalezarko kalekantoietan ere, iskanbila ederra sortuz.*

Hala ere, gai hauen berri zehatzagoa dutenek hemen-dik urte batzuetara Euskal Herriko populazioa dezentez zahar-ragoa izango dela diote, umeak gutxitzen ari direla helduekin alderatuz gero. Jende-

ak ez al du haurrak mundura ekartzeko gogorik, hala?

Denok dakigu arazoa ez dela hori bakarrik (bestela erraza legoke, denak jo ta su hasi izerdi patsetan eta kitto!).

Batetik, lan finko baten segurtasuna, bestetik etxebizitza... Arazoa uste baino konplexuagoa da. Kontuak kontu, jaiotza gutxi eta aldaketarako egoera iluna, epe laburrera, behinik behin.

Hala eta guztiz ere, eskala txikiago bat hartu eta Euskal Herri osoa beharrean, Usurbil bakarrik aztertzen badugu, gauzek beste traza bat hartzen dute.

Dagoeneko ez naiz jaiotze-

tasari buruz mintzo, bai, ordea, populazioarekin zerikusi zuzena duen arrazoi bati buruz. Ez al dago gero eta etxebizitza gehiago Usurbilen? Egunetik egunera haunditzen ari da berez hain handia ez den herria. Pentsa zein punturaino, lehen Kalezar alderatuta gertzen zela herrigunetik eta orain, berriz, ia bat eginda gaude. Ezin jakin non hasten den bat eta non bukatzen den bestea.

Ez ote gara herria zibilizazioaren atzaparretatik gertuegi jartzen ari? Ez ote gara beste guztiengandik bereiztu izan gaituen herri-nortasuna galtzen ari? Ez al da hala izango!

ATXEGALDE

Amagoia Mujika



Badakit, baina agian...

Pasa berri diren inauteriez jardungo naiz oraingoan, duela aste pare bat Usurbilen nagusi izan zen "panoramak" ez du, eta, gutxiago merezi. Nire auzo honetako kutsua ematekotan, gaiak badu eldulerurik. Atxegaldeko emakume kuadrilak, aurten ere, lezioa eman baitigu. Urtero legez, nagikeria bazter eta mozorroa soinean, kalera atera dira auzotar hauek.

Askok dugu, oraindik orain, zer ikasia gu baino helduagoez. Aho betez hor aritzen gara gaztetasunaren baloreak defendatuz, lotsagabekeria, umorea eta freskotasuna, besteak beste. Aurtengoan, ordea, errepaso ederra hain gazte ez izan arren, are gazte-

ago sentitzen diren herritar zenbaitek emanikoa, gure auzoko emakumeak edota herriko gizon kuadrila batek kasu.

Inauteriak izan arren, herritar askok nahiago izan du ez mozarrotu eta edozein parrandan bezala, kalera irten festa gogoan. Ez dakit noren lepo behar zuen antolaketa lanak ere ez dira batere txukunak izan. Oraindik gogoan ditut, mozorro berria soinean, larunbat goiz partean jolaserako gogoz frontoira gerturaturiko haurrak. Ezeren esperoan egon eta gero, etxera bueltatu behar; ziur petrill gainean hamaika zerrikeri irentsi ostean.

Beti hor aritzen gara usurbildarrak garela eta gure herria goratzen. Ezer gutxi balio dute

hitzek, ordea, baldin eta herriko festa baten aurrean (xumea izanagatik gure-gurea baita), kanpoko aukeraren alde egingiten badugu.

Badakit Negu Gorriak taldearen kontzertua zela eta gazte askok Anoeta alderako joera izan zuela. Badakit hau ez dela Tolosa. Badakit eguneroko marxan nekeza dela buruari eragin eta lau trapuren bila armairu zaharrean murgiltzea. Badakit, badakit eta badakit.

Baina, agian, guztion aldetik gutxieneko ahalegina eginez gero, inauteri ederrak izango genituen Usurbilen, xumeak bezain ederrak. Agian, guztiok saiakera txikia eginik etxeko txikienei ez zitzaientz jolasik faltatuko. Agian, agian, agian...

SANTUENEA

Pako Agudo



Zahar Egoitzako arduradun berria

Oraindik neguak ez gaitu utzi, baina gure auzokide zaharrenak lehen baino gehiagotan ikusten ditugu kalean paseatzen. Lasai egon etxetik ez dituzte bota eta! Izan ere, egun hauetan zaharren egoitza itxita baitago.

Orain arte egon diren arduradunek uztea erabaki dute eta zahar egoitzako taberna berriz irekita ikusteko aukeraketa bat egin beharko da. Horixe da hain zuzen ere, egun hauetan hitzetik hortzera dagoen gai nagusia.

Kiniela antzeko bat ere mar txan jarria dute auzo batzuk. Poliki-poliki jendea hautagaiak zeintzuk izango diren asmatu

nahian dabil eta horrekin batera, lehen aipatu bezala, bakoitzak bere kiniela egiten ere ari da.

Badakigu euria ez dela denon gustokoa izaten, eta taberna bat tabernari ezberdinarekin ez dela bera izango. Hala ere, eman diezaiozun denon artean aukera sartzen den berriari, izan ere, ziur bainago gogoz hasiko direla eta.

Bestalde, eta bukatzeko esan,

auzoko auto gidatzaileei zubian jarri dituzten trafiko-seinaleez kexu egiteari uzteko eskatuko nieke, izan ere, seinale hauei esker oinezkoak hemendik igarotzerakoan beldurra aldentzea lortu baitugu.



URDAIAGA

Eider Jauregi



Azeriak

Noaua! aldizkariaren aurreko aleetako batean inguru hauetan basurde ugari zebilela irakurtzen genuen, baina ez dira basurdeak gure inguruan dabilzan bakarrak. Azeri asko dabilta azken aldian eta gure baserriko oilasko batzuk eta arkume bat ere eraman dizkigu dagoeneko.

Azeria, animalia babestua izanik, baserritarrok zer egin ez dakigula geratzen gara askotan, izan ere hauen aurka ezin dugu ezer egin. Azeria oso animalia azkarra da eta gure begiekin ikusi ahal izan dugu gure oilotegitik oilaskoak edo oiloak eramaten. Hala ere,

gutziz debekatuta daukagu hauen aurkako zepo eta tranpak jartzea. Baina nor egiten da galera hauen erantzule?

Salaketa jartzean esaten digute beraiek ez dutela argi ikusten azeria izan den ala ez,

hori frogatu egin behar dela. Baina nola? Nahiz eta gure begiekin ikusi guk ezin dugu inolaz ere ezer frogatu, azeriak berarekin eramaten baitu harrapatzen duen guztia.

Eta nor esaten dio autoritatei guri falta zaizkigula? Nola sinistarazi behar diegu sarraski hau? Beharbada kamararen bat jarri beharko dugu oilotegian! Hau ere ikustekoa izango litzateke.



AGINAGA

Maria Angeles Arruti



30 urte auzo honetan

1971ko martxoaren 6an bete dira ezkondu nitzela 30 urte, ta ospakizunak merezi duen bezela, lehenendabiziko aldia baita Amagoiari jarri beharrekoak esan gabe kronika nik idazten dudala, aldan ondoen idazten saiatuko naiz. Izan ere, azken 30 urte hauetan gure auzo honetan zer aldaketak izan diran agertzeko estatistika txiki bat egitea bururatu zait.

Urte hartan 12 etxe ta baserri ta 23 etxebizitza zeuden 144 biztanlerekin; gaur egun, ordea, 71 biztanle etxe ta baserri berdinetan. Erdiak gerala konturatuko zineten. Baserri hoietatik 6 bakarrik dira gauduak dauzkatenak ta hoiek dituzten behi, txekor, ardi ta

txakur guztiak bat eginda ere ez dakit osatuko gendukeen garai hartako biztanleen kopurua.

Batzuk ezkondu ta kanpora bizitzera joanak dira, ta beste asko beste mundu batera joan zaizkigu. Gaur burua altxako balue erriberan egin dituzten garbitasunak ikusteko zer esango ote lukete? Larrak ta abol ziztrinak hauts bihurtu dituzte (badago aurre rapena) ta gero makala aldatzeko asmoa omen dute. Itzal haundia egiten

omen dute arbol hoiek ia urte batzuetan hori ikusteko zoria izaten dugun.

Ta azkenik, nere auzotarrei barkamena eskatu nahi diet denboraldi hontan zerbait gaizki egin edo esan badin badet (intentzio txarrez ez zen izango, hori ziurtatzen dizuet) ta eskerak onartua izan naizelako.



ZUBIETA

Xabier Arregi



Herri-asanblada

Munta handiko kontuak Meta albisteak heldu dira Zubietara azken aldian. Horien artean beldurgarriena Eusko Jauriaritzak iragarritakoa: bi milatik gora etxe egiteko asmoa omen dute, eta horretarako lurak erositak omen daukate dagoeneko. Plan horrek gordinki erakusten du gure herriaren etorkizuna kolokan dagoela. Eraso gogorra da, zubietarrok aintzat hartu gabe egindakoa.

Horrekin batera, baina honakoan geu jakitun garela, eman zaio hasierako onarpena

plaza inguru urbanizatzeko proiektuari. Zubietako plaza inguruak egundo ezagutu duen aldaketarik handiena ekarriko du urbanizazio horrek. Hasierako onarpenaren ondo-



ren, orain jendaurrean erakusteko eta alegazioak aurkezteko epea irekiko da.

Saneamenduari dagozkion berriak ere heldu zaizkigu Herri-Batzarrera. Añarbeko mankomunitateak adierazi digunez, aurten bertan hasiko omen dira obrak.

Agerikoa denez, bada zer kontu eta zertaz hitz egin. Horretarako asanblada bat deitzea erabaki du Herri-Batzarrak. Herri-bilera datorren martxoaren 24an egingo dugu. Laster helduko zaizuen deialdian zehaztuko da zein orduetan eta non izango den asanblada.

Etxe izendegien plakak egingo ditu Bustinzulo taldeak

Bustinzulo keramika taldeak eta udalak hitzarmen bat sinatu berri dute. Udalak herriko etheen izenak ez galtze arren hauetan keramikazko plakak jartzeko aukera eman nahi izan die izen bat duten herriko 140 etxe baino gehiagori. Horretarako eskutitz bana bidali zitzaion eta orain arte baiezkoa eman dutenentzat plaka hauek egiten hasiko da Bustinzulo Keramika taldea.

Herriko 20 etxe ingururen jabeek agertu dute plaka hau jartzeko asmoa, baina hauek denak batera ezin direnez egin pixkanaka-pixkanaka egitea erabaki dute. Lehenik eta behin Kale Nagusiko zortzi etxeren ize-

nen keramikazko plakak egingo dituzte.

Bustinzulo Keramika taldeak lehen ere egin izan ditu horrelakoak, ez etheen izenekin, baina bai kaleen izenekin. Izan ere, 1994. urte inguruan kale bakoitzaren izenarekin keramikazko plakak egin baitzituzten. Horrez gain, frontoiko estalki berria egin zutenean ezker paretaren atzeko aldean dagoen murala ere beraiek egin zuten.

1983. urte inguruan sortu zen talde honetako kideak Zumarte musika eskolaren azpian duten lokalean biltzen dira. Hemendik aurrera etheen izenen plakekin, behintzat, ez zaie lanik faltako.



Bat-batean

Beka deialdia

Udalak herriko udal artxiboko argazkiak antolatu eta digitalizatzeko beka bat eman go du Eusko Ikaskuntzaren bitartez. Guzti hau gauzatzeko 1.800.000 pezeta bideratuko dira eta bekadungaiak dokumentazioan, digitalizazioan, irudi tratamenduan eta ofimatikan adituak izan behar dute edota egin beharreko lanaren arloan esperientzia dutela frogatzera behartuak daude. Horrez gain, Eusko Ikaskuntzako kide izan behar da. Dokumentazioa Eusko Ikaskuntzaren bulegoetan aurkeztu behar da martxoaren 15a baino lehen.

Kale izendegian kale bat gehiago

Txaramunto aldean egiten ari diren etxebizitzak ziztu bizian doaz aurrera. Etxebizitza horien inguruko urbanizazioan kale berri bat sortu da eta udalak izen bat ematea erabaki du. Pasa den otsailaren 27an egin zen udalbatzan kale berriari "Txaramunto" izena jartzea onartu zen. Izan ere, urbanizazio berria egin aurretik bertan zegoen etxearen izena jartzea erabaki dute, toponimoari galdetzeko aukera baztertuz. Kale izendegia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera bidali eta eguneratu ostean jendaurrean jarriko da.

Kale Nagusia, USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

Zendoia enea
Taberna

- ✓ Pintxoak
- ✓ Eguneko menuak
- ✓ Bokatak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Razioak,...

PATRI
J A T E T X E A
E u n k z k r k
t f r k
N.º 15 33 27 25 217 35.1
(G. U. K.)

Kale Nagusia, 35 Telf; 943 36 25 60

LABE-GOXO

Udalaren aurrezki garbia %5,5 igo da azkenengo zortzi urtetan

Aurrezki garbia Gipuzkoako udaletan batzbesteko boskoiztu egin den bitartean Usurbilen %5,5 igo da azken bost urteetan. 1993. urtean 77.711.994 milioi pezetako aurrezki zuen udalak, 1999. urtean, berriz, 434.068.419 pezetara iritsi zen kopuru hori. Hau da udalak, esku askearekin, nahi duen helburuetarako (inbertsioetarako batez ere) bideratu dezakeen dirua.

Udal baten aurrekontuetan gutxi edo gehiago urtero errepikatzen diren sarrera arruntak eta gastu arruntak daude. Urtero udalak zergetatik, transferentzia arruntetatik eta inbertsioetatik kobratzen duen diruak osatzen du sarrera arrunta, gastu arrunta kalkulatzerako orduan, berriz, pertsonal gastuak, funtzinamendu gastuak, transferentziak, maileguen interesak eta hauen amortizazioak hartzen dira kontutan. Aurrenekoari bigarrena kendu eta ateratzen

den soberakina izango da aurrezki garbia.

Usurbilen aurrezki hori urtez urte goruntz joan da azken urteetan. 1993. urtean 77.711.994 pezeta zituen udalak, 1999an, aldiz, 434.068.419 pezeta. Zein izan da igoera horren arrazoa? **Xabier Olano** diruzainaren arabera gastu arruntek igoera neurtuagoa izan duten bitartean sarrera arruntak asko igo dira azken urteetan. *"Hala ere aurrezki garbi horren igoera aztertzerakoan beti errepikatzen ez diren faktore batzuei ere begiratu behar zaie: herrian obra haundi batzuk egin dira, Eroski esate baterako, eta horien bidez sarrera arruntek gora egiten dute".*

Aurrezki hori normalean inbertsioetarako erabilia

Aurrezki hori nahi duenerako erabili dezake udalak, baina normalean inbertsioak egiteko

erabiltzen da. *"Inbertsioak aurrezki honen arabera egiten dira, bestela maileguetara jo beharra dago. Aurrezki hori gero eta haundiagoa bada inbertsio gehiago egin daitezke, baina horrekin ez bada iristen finantziaketa zorpetzearekin konpontzen da, hau da, maileguekin".*

1999an, adibidez, 397.493.203 pezeta gastatu zituen udalak inbertsioetan. Aurrezki garbia haundiagoa izan zela kontutan hartuta ez zuen maileguetara jo beharrik izan. *"1998an 5.000-10.000 biztanle dituzten herrietan batzbesteko biztanleko 44.865 pezeta gastatu ziren inbertsioetan, baina Usurbilen 75.497 pezeta".* 1998an, ordea, 100 milioi pezetako mailegua eskatu behar izan zuen Atxegaldeko urbanizazioari aurre egiteko. Inbertsioak 468 milioi pezeta ingurukoak izan ziren eta aurrezkiarekin bakarrik ezin izan zen hori guztia bideratu.

Urtea	Aurrezki garbia	Inbertsioa	Maileguak	Zor bizia	Zor bizia	Zergen sarrera
1999	434.068.419	397.493.203	0	436.097.143	436.097.143	139.303.713
1998	261.813.311	468.744.958	100.000.000	496.219.904	496.219.904	134.871.848
1997	175.967.101	130.316.069	0	525.932.370	525.932.370	124.884.529
1996	104.454.671	81.746.663	0	503.611.533	503.611.533	119.701.754
1995	78.869.788	102.929.246	20.000.000	545.202.267	545.202.267	111.063.992
1994	36.912.576	51.131.576	38.666.913	565.908.023	565.908.023	109.219.308
1993	77.711.994	55.051.627	18.000.000	563.822.643	563.822.643	103.796.000

ITURGINTZA

JOSEBA ARANGUREN

Telf: 943 36 43 64

LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 2635- 36 33 48
Mobila: 609 888021

JOSUE
ARANZAZISTROKI

**IGELTSERITZA
eta
PINTURA**

Juan Jose enea. 6 Telf: 943 36 05 50
Kalezar 606 37 21 05

Ibaiko erregea, izokina, Oria ibaira itzultzeko ahaleginetan

XXI. mendeko 40 hamarkadan bere erregetza galdu ondoren, ibaiko erregea, izokina, Oria ibaiko uretara itzuli da garai batean zuen nagusitasuna berreskuratu asmoz. Duela hiru urte bi izokin harrapatu zituzten Orbeldiko pasatokian, 1998an bost eta iaz, berriz, marka guztiak apurtu eta 53 izokin izan ziren Oria ibaian gora joateko ausardia izan zutenak.

Oria ibaia zikinkeriaz beteta ikusten genuen duela urte batzuk. Aparra alde batetik, plastikoak bestetik... eta hara eta hona begiratu eta... arrainen arrastorik ez, nola ba. Oria ibaia urte askotan izokinentzat bizileku egokia izan bazen ere, XIX. mende bukaeratik XX. mendearen ia amaiera arte erabat degradatu zen ibaia. Industrializazioaren hondakinak ziren izokinen etsai nagusiak eta zentral hidroelektrikoe-tan jarritako presen instalazioek ere ez zieten ezertan laguntzen. Honekin batera, espezie hau neurrigabe harrapatu izanak, ur gezatan nahiz gazitan, beherako joerari azken zasta-tekoa eman zion.

Oria ibaian izokina ibairatzeko plana

XIX. mendearen amaieran, biztanleen hainbat sektore hasiak ziren gizakia ibailetan sortzen ari zen kalteez ohartzen, eta ondorioz, izokinengan, uren aldaketan aurrean sentibera den animalia batengan, hain zuzen ere. Hori dela eta hainbat erakundetatik birpopulaketak martxan jarri ziren. "Urumea, Oria eta Urola ibaiak birpopulatzeari ekin zitzaion,



izokin arruntaren bi mila kume ibairatuz..." zioen 1909. urtean Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako erabaki batek.


Hala ere, azken hamarkadan Oria ibaian egindako saneamendue lanei esker izokina berriz ere gure artean da. Hainbat industria kutsatzaile desagertzeaz gain, hiri isurketen kontrola haundiagotzearekin batera gure ibaiko uren egoera nabarmen hobetzen ari da. Gauzak horrela, 1995. urtean Foru Aldundiak Oria ibaian izokina ibairatzeko plan bat martxan jarri zuen. **Iñigo Mendiola** Foru Aldundiko nekazaritza saileko teknikariaren esanetan "prozesu mantxoa da, baina izandako emaitzak ikusita honelako ahaleginak egitea merezi du".

Duela hiru urte bi izokin igo ziren ibaian gora, bost 1998. urtean eta iaz ezusteko galanta hartu zuten, 53 izokin sartu baitziren Kantauri itsasotik Oria ik

arrazoiak zeintzuk diren ezin dela jakin esan digu Iñigok. "Urte ona izan zen leku askotan, eta Oria ibaian ere bai. Hala ere, ibai hau gero eta garbiagoa dago eta egiten ari garen ahaleginak lehendabiziko fruituak ematen hasi direla esango nuke nik. Ura garbi xamar badago eta ur emaria maila onean izanez gero izokina lasai joan daiteke Oria iaian gora. Oriotik Usurbilaino ia ez du oztoporik eta Orbeldiko presan pasabidea jarri genuenez, izokin gero eta gehiago igotzen hasi dira".

Orbeldiko pasabidean harrapatzen dituzte izokinak

Izokinek salto haundiak ematen dituzten arren Orbeldiko presa ezin izaten zuten gaintitu. Horregatik, eskailera antzeko bat jarri zuten hauei presa gaintitzen lagundu eta zenbat izokin etortzen diren zenbatzera. "Orbeldiko



pasabidean harrapatzen ditugu Orian gora igotzen diren izokinak. laz hasieran sartu zirenak sei kilo ingurukoak ziren eta azkenengoak, txikiagoak, bi kilo ingurukoak. Izan ere, bidaiari nekaezin hauen pisua itsasoan pasa duten denboraren arabera izaten da. Urtebete pasa badute 2 edo 3 kilokoak izaten dira eta bi urte pasa behar izaten dituzte lau kilo baino gehiago hartzeko”.

32 izokin Leizaran ibaira eraman zituzten

Eskailera horretan igotzen hasten direnean, guardak etorri arte ez aurrera eta ez atzera gelditzen dira pasabidearen bukaeran eta **Iñigo Mendiolak** esandakoaren arebera zenbaitu eta pisatu ondoren norabide ezberdina hartzen dute izokinak. *“laz igo ziren izokinetatik 32 Leizaran ibaira eraman genituen. Harri ugariz betetako zoruaz gain, izokinak oxigeno askoko ura behar du, ur garbia, errunaldia egiteko. Leizaranek baldintza horiek erraz betetzen ditu eta leku egokia iruditzen zaigu izokinaren birpopulazioarako. Hori bai, udaberrian errunaldia egiten duten hala ez jakiteko eta izokin kumeak jaio diren jakiteko azterketa bat egiten dugu”.* Beste bi eme, berriz, Irungo Ibarla haztegia eraman zituzten eta beste guztiak Oria ibaian bertan askatu eta hor nonbait ibiliko dira.

Oria ibaian izokinak berreskuratze ahalegina ez da horretara bakarrik mugatzen. Pasa den otsailaren 14an, adibidez, Irungo Ibarla haztegia hazitako 600 esgin (14 zentimetro inguruko izokinak) ibairatu zituzten Lasarte-Orian. Ekaina edo uztaila aldera, berriz, izokinkumeen txanda izango da.

Izokinak gutxieneko tamainua lortu behar du itsasora bidaia egiteko behar bezala-



ko baldintzetan egon dadin, bestela ezin izango baita ibaian behera jaitsi. Horregatik, Oria ibaian ibairatutako esgin hauek ibaira ezagutu eta pixka bat indartzen direnean udaberri aldera ibaian behera abiatuko dira. Nahikoa indar

dutenak itsasora iritsi eta bidaia luze bati ekingo diote, besteak, berriz, bidean hilko dira.

Ibaia utzi ondoren urtebete eta hiru urte bitartean, behin itzultzeko tamaina egokia lortuz gero, izokina bere sorleku eta helmugarekikoak egiteko prestatzen da. Espeziea irau-narazteko deiak izokinak ume-tako bizilekura itzultzeko bidea hartzea erabaten ditu. Ez da ezagutzen zehatz mehatz zeri jarraitzen dioten sortu zireneko ibai arroraino iristeko. Hala, usaimenaz gain, ibilbidean orientatzeko erabili ohi dituzten beste hainbat elementu aipatzen dira, besteak beste: eguzki eta ilargiaren kokalekua, luraren eremu magnetiko eta elektromagnetikoak, luraren grabitate eremuak, korronte ozeaniko haundiak eta uraren gazitasuna eta hotzberoa. Noizbait itzuliko ote dira Oria ibaira otsailean aske utzi zituzten izokinak? Adituek diotenez mila izokinetatik bik lortzen dute jatorrizko ibaira itzultzea.

Izokinak harrapatzerakoan hainbat ikamika

Azken bi mendeetan mota guztietako legez kanpoko materialak erabili izan dira ibaiko erregea kanpora arazteko. Oria ibaian nasak (heso- lez lotutako sareak jartzen zituzten ibai itxi eta izokina harrapatuta gelditzeko) eta 1955. urtean debekatu zituzten sareak erabiltzen ziren garai batean.

Nasen inguruan hainbat ikamika sortu izan dira Aginagan hasi eta Zubieta bitartean. 1556. urtean, adibidez, Juan Atxega eta aginagatarren artean auzi bat izan zen ibaiko nazak zirela eta. 1707ko idatzi batean aginagarrek debekaturik zeuden

arrantza sareak erabiltzen zituztela eta izokin naza Arro- arte izeneko kokalekuan jartzen zutela aipatzen da. 1744-ko espediente baten arabera Zubietako zubiaren inguruan kokaturiko nazak zirela eta Lasarteko herrerientzako merkantziak kargaturiko untziak ezin zuten bertatik pasa.

Izan ere, nazak jartzen zituzten eta ontzien jabeen artean sortzen ziren istilurik haundienak, ibaiaren ia zabalera osoa hartzen zuten naza hauek untzien joan etorria oztopatzen zuten eta. Garai hartan angulak ez ziren aipatu ere egiten, izokinak bai, ordea.

Iheslari politikoaren egoerari buruz informazio astea antolatu dute

Errepresioaren inguruan lanean diharduten zenbait elkarteek (Gure Artera Bilguneak, Amnistiaren aldeko Batzordeak eta Senideak) datorren martxoaren 19an hasita, hainbat ekimen prestatu dituzte, errepresioa tarteko, ihes egin eta bere herritik kanpo daudenen egoera ezaugarzteko.

"Espetxeetan dauden euskal preso politikoaren egoeraren berri maiz izaten du, jakin nahi duenak behintzat. Baina badira Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoaren ondorioz beste errepresio mota ezagutu eta ezagutzen dituzten euskal herritar asko eta horien problematikaz ezer gutxi ezagutzen da. Hutsune honi nolabait aurre egin nahian prestatu dugu aste hau" diote antolatzaileek.

Duela aste gutxi ezagutzera eman ziren datuen arabera bi milatik gora errefuxiatu daude



Euskal Herritik kanpo, munduan zehar barreiaturik, egoera oso ezberdinak pairatuz.

Orain urte asko Estatu frantsesak errefuxiatu izaera aitortzen zien. Gerora nolabaiteko "tolerantzia" izan zuen hauekiko, baina aspaldi honetan gobernu espainiarrarekin bat eginda, iheslarien jazarpenari,

atxiloketari, deportazioari edo estradizioari ekin dio.

Hauei aurre egiten saiatzen dira. Maila pertsonalean sende, lagun eta dauden herrialdeko hiritarren elkartasunari esker. Baina beren izaera politikoari helduz, iheslarien kolektiboak zenbait ekimen hartu ditu azken urteotan. Horrela, euskaldunak direnez, eta beren aerrian bizitzeko eskubidea aldarrikatuz, konfinamendua, deportazioa edo ezkutua hautsita, Ipar Euskal Herria bizitzera etortzen dira.


Badakite zapaltzen gaituzten bi Estatuenean uneko interes politikoaren arabera, atxilotuak eta polizia espainolari entregatuak izateko arriskua dutela. Hala ere, Euskal Herrian bizitzeko eskubideari atxikiz, arrisku horri aurre egin eta beren herriko eraikuntza prozesuan protagonista izan nahi dutela aldarrikatu dute.

Zubietako urbanizazio proiektua onartu da

Donostiako udalak Zubietako urbanizazio proiektua onartu zuen pasa den otsailaren 20ko gobernu batzordean. Plan partzialean 96 etxebizitza eraikitzea erabaki zen eta proiektu honekin Zubietako kaxkoa bide berri eta etxe berriekin inguratuko da.

Urbanizazio proiektu honekin duela hiru urte onartu zen plan partziala zerbait aldatu da. 322 milioitatik 500 milioitara pasa dira urbanizazio gastuak eta Donostia eta Usurbilgo udalek 25 milioina pezeta gehiago jarriko dituzte.

Proiektu honen arabera, urbanizazioak aldaketa batzuk izango ditu eta Zubietako kaxkoaren inguruan egingo diren



etxebizitza eta bideetan hainzuzen ere. Ibilgailuak kaxkotik ez pasatzeko kanpo aldean bide berri bat egingo dute, eta beste bideak bide sare nagusi honekin lotuko direla zehazten da. Horrez gain, berrikuntza horien ondorioz kalte-

tuko diren eremuak galtzardatzatuko dira besteak beste.


Lurren mugimendua, bide azpiegituretako inbertsioak, kaxkotik ez pasatzeko bidearen gauzatea etab. Donostiako udalak zuzenduko ditu.

70 lagun inguru bildu zituen herriko lehenengo Aerobic Maratoiak

Joan den martxoaren 3an kiroldegian musika eta erritmoa nagusitu ziren, herrian lehenengoz Aerobic Maratoia izan baitzen. 70 lagun inguru gerturatu zen ia bi orduko saiora, horietatik 16-18 inguru herritarrak. Urnieta, Andoain, Zarautz eta Donostia aldekoak izan ziren, nagusiki, gainontzeko parte hartzaileak.

Antolatzaile zein parte hartzaileak gustura zeuden amaieran, batzuk espero baino jende gehiago animatu zelako eta besteak uste baino errazago aritu zirelako gustuko kirola egiten.


Ikusle kopurua izan zen, ziurrenik, azpimarratzeko modukoa. Izan ere, antolatzaileek espero baino jende gutxiago gerturatu zen Oirado kirol-



degira aipatu maratoia ikustera. Azkenean, hainbeste lotsa zituzten herritarrak benetan txukun erantzun zioten apustuari eta, gainera, aurrerantzean errepikatzeko gogoz amaitu zuten.



Inauteriek ez zuten arrakasta haundirik izan herrian. Ondo hasi zen asteburua, Udarregi ikastolako ikasleek jaialdi polita eskaini baitzuten otsailaren 23an, ostiralean, baina horrek ez zuen jarraipenik izan larunbatean. Azken urteetan ez bezala, jendea zain egon bazen ere, goizean ez zen haurrentzako jolasik izan. Arratsaldean, berriz, gaia finkatuta zegoela kontutan hartuta oso jende gutxi mozarrotu zen, eta ez zen beste urteetako girorik sortu frontoi inguruan.



Pasa den otsailaren 18tik otsailaren 25a bitartean **Alejandro Tapia** margolari usurbildararren artelanak egon ziren ikusgai Udarregi zaharreko erakusketa aretoan. Aginagan duen es-tudiotik koadroak Usurbila ekarri eta herritarren eskuera utzi ditu Mihixe Pintura Eskolak antolatutako bigarren erakusketa honetan. Erakusketa hauek, ordea, jarraipena izango dute, apirilean Joxe Luis Zumeta herriko margolari entzutetsua-ren artelanak ikusteko aukera izango baita.

**MIKEL
IZAGIRRE**

ELEKTRIZITATEA

Goiz Argietxea, 37
Kalezar
Telf.: 943 36 50 95

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Telatarren berritzea



Patekaren konpaktaketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

N • I
II n

MIST
S l r un, l z ,
m k! t m n kur

Aritzeta 2-2 1.A
Tel.: 943 36 19 51

Esteban Arrillaga: “Gure judokek duten guztia ematen dute”

Esteban Arrillaga Usurbil Judo Taldeko entrenatzailea da. 15 urte pasa dira donostiar honek talde honen ardura hartu zuenetik, eta urte horietan Euskal Herriko talde onena bihurtu du. Ugari dira Espainiako txapelketetan lortutako dominak, oraindik eta gehiago Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan lortutakoak. Berari eta bere ikasleei esker Usurbil ezaguna da Espainiako leku gehienetan.

Nola eta noiz sartu ziren judo mundu honetan?

Bost urterekin judo egiten hasi nintzen Donostian eta denborarekin gerriko beltza lortzera iritsi nintzen. Espainiako txapelketan parte hartzeaz gain 18-19 urterekin Lasarten klaseak ematen laguntzen nion nire irakasleari Hau auto istripu batean hil zenean nik hartu behar izan nuen ardura hori.

Eta nola hartu zenuen Usurbilerako bidea?

Bila etorri zitzaizkidan 1982. urtean. Usurbilen judo klaseak emango al nituen galde-tu zidaten eta nire baiezkoaren ondoren 32 ikasle ingururekin hasi nintzen. Hasieran talde bakarra izan nuen, gero bi, ondoren hiru... lau urtetik hasi eta helduetaraino ditut orain. Gaur egun 107 judokak osatzen dute taldea.

Aspaldi honetan Usurbil Judo Taldea Euskadiko talde onena da. Nola lortzen da hori?

Ikasleek beraiek lortu dute guztia. Herri honetakoek kirolarekiko duten jarrera (judoan behintzat) ezberdina da beste herrietakoekin alderatuz. Irunen ere klaseak

ematen ditut, entrenatzailea bera da baina emaitzak ez. Izan ere, Usurbilgo taldean duten dena ematen dute, bai entrenamenduetan eta baita lehiaketetan ere. Astean hiru egunez entrenatzen dugu, eta entrenamenduetatik guztiz nekatuta ateratzen dira, dena ematen baitute.

Beraz, herri egokira etorri zinen.

Baietz uste dut. Jendea, lekua, patronatua, udala.. honelako zerbaitek aurrera egin dezan inguruko laguntza behar da eta guk zorte hori izan dugu. Taldeko judoka bat ikastera kanpora joaten bada atzetik datoren beste batek hartzen du haren lekua. Otsailaren 24 eta 25ean, adibidez, bosgarren eta seigarren mailako ikasleekin Donostian izan ginen inguruko herrietakoekin lehiatu eta

Gipuzkoako onenak zeintzuk ziren jakiteko. 15 ikasle eraman nituen eta 11, inguru honetako onenak izan dira.

Baina guzti honetan irakaslearen lanak zerikusirik ba al du?

Zerbait bai. Txikitatik entrenatzeko era batekin ohitzen dira eta beste guztia bere kasa etortzen da. Batzurekin akats batzuk izan ditut, baina gainontzean nire ikasleek duten guztia ematen dute.

Herriko jendeaz gain, kanpo-koak ere badaude ezta?

Espainia mailan zedozer egin nahi duten judokak Usurbilgo taldera etortzen dira. Tolosatik, Elgoibartik, Ergobiatik, Irundik... astean hiru aldiz etortzen dira entrenatzera.


Judoaz gain, sambo eta borroka librean ere aritzen zarete.

Bai, eta emaitza onekin gainera. Osagarri modura egiten ditugu borroka mota horiek. Judoko entrenamenduak oinarritzat hartuta soilik, borroka librean hasi eta Espainiako txapelketak irabazi ditugu, taldeka hirugarren postua eskuratu dugu, European hiru domina lortu ditugu...

Lehiaketa askotan parte hartzen duzue ezta?

Askotan irten gara Euskal Herritik. Udaran, adibidez, Alicanterara goaz Portugalera ere joan ginen... Emaitza onak nahi badira onenekin lehiatu beharra dago eta horregatik joaten gara kanpora. Maiatza bitarteko egutegia oraintxu egin berri dut eta asteburu guztietan txapelketak ditugu, batzuetan hurrekin, gazteekin bestetan, eta helduekin ere bai.

Josu Aranberri





Mahai tenisa

Pasa den otsailaren 24an jokatu zen mahai teniseko kadete mailako Gipuzkoako txapelketa eta usurbildarrek eman zuten zeresanik. Lasarte Oria Kirol Taldean jokatzen duten **Mikel Otaegi eta Egoitz Mendikute** usurbildarrak txapelaldun gelditu ziren kadete A mailan. **Mikel Otaegik** banakako txapelketan lehengo postua eskuratu zuen lehendabizi eta ondoren, **Egoitz Mendikuterekin** binakako txapela eskuratu zuen.



Futbola

Usurbil Futbol Taldeko neskek zazpigarren postuan amaitu dute liga. 11 talde ziren multzoan, eta denboraldian zehar hirugarren postua eskura izan badute ere, azken hiru partidak galdu ondoren postu horretaraino jaitsi dira. Orain, kopa jokatuko dute. Bestalde, Kontxako hondartzako txapelketan ligako lehen postuan da Aginaga Sagardotegia. Hiru partida jokatu eta hirurak irabazi dituzte eta finalerdiak eskura dituzte.



Emaitzak

Futbola neskak

Martxoak 3-4

Hernani **1** - Usurbil F.T **0**

Eskubaloia

Otsailak 24-25

Usurbil K.E. **22** - Escolapios **21** (2.N.)

Martxoak 3-4

Ereintza **27** - Usurbil K.E. **24** (2.N.)

Xapot **27** - Usurbil K.E. **24** (ju.m)

Usurbil K.E. **14** - Zarautz **14** (ju.n)

Arrasate **21** - Usurbil K.E. **18** (k.m)

Futbol aretoa

Otsailak 24-25

Pello Arraind. **2** - Ayete **7**

Antxeta **3** - Larramendi **4**

Txotx **7** - Gorren **4**

Laskorain **4** - Aitzaga **1** (Ju.n)

Martxoak 3-4

R. Vizcaino **2** - Pello Arraind. **7**

Mikelson **4** - Txotx **2**

Idiazabal - **5** Antxeta **5**

Hondartzako futbola

Otsailak 10-11

Aginaga Sag. **5** - Eguzkiaren lagunak **2**

ERRAZKIN

Igeltseritza
orokorra

Kale Nagusia, 1
Telf: 943 37 26 79 eta 36 51 25
Santueña Mob: 629 42 05 65



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

Pinturas
Ion



943 83 09 37 ☎ 670 397504

HALTIDORRE
EUSKAL
OKELA



CARNE DE VACUNO
DE CALIDAD
DEL PAYS BASQUE

Beheko kalea. 4
Telf: 943 36 57 42

ALKORTA AUTOZERBITZUA

FRUTAK
BARAZKIAK
ETKEKO PRODUKTUAK
KONGELATUAK



Euskalpresoaletxera!



HEIKTEN

stok eta kate, ber
konkretu, eta...

Tlf. 33 217



Kaki Arkarazo: "Jaialdi hau gure bizitzaren zati oso garrantzitsu baten bukaera izan da"

Otsailaren 25ean Negu Gorriak taldeak, Donostiako Anoetako belodromoa gainezka zegoela, bere azken kontzertua eskaini zuen. Aspaldiko zaletuek ez zuten hutsik egin, ezta lehen aldiz Negu Gorriak zuzenean ikusteko aukera izan zuten gazteek ere. Taldearen agurra izan zen eta, horrela, euskal rockaren historia-ko beste orrialde bat idatzita utzi zuen taldeak. Kaki Arkarazo jaialdi historiko honen lekuko aipagarrienetariko bat izan denez, beregana jo dugu.

Bost urte eta gero, Negu Gorriak oholtza gaineara itzuli da eta 28.000 pertsona bildu ditu hiru egunetan. Zer sentitzen da?

Ez naiz pentsatzen jarri ere egin, okerragoa izango delako. Guk bagenekien jende asko etorriko zela, belodromoa beteko zela. Izan ere, Negu Gorriak taldea desagerterazera zihoalaren abisurik ez genuen eman, ezta azken jaialdia eskeini ere.

Gainera, gazte jendeak lehen aldiz Negu Gorriak zuzenean entzuteko aukera izan zuen.

Halaxe izan da eta horrek erabat harritu gaitu. Guk utzi genuen ezkeroztik honuntza beste belaunaldi batek, gazte jendeak ere, gure diskak entzuten zituela ez genuen uste ezta inoiz zuzenean ez gaituela ikusi ere. Horrek harrিতuta utzi gaitu. Guk utzi genuen garaitik gaur arte gure diskak entzuten direla ikusi da. Garai batean



JON URBE

Kaki Arkarazo kontzertuaren une batean.

egindako lanak beste belaunaldi batengan eragina izan du. Horrek ilusio haundia egin digu.

Zerk bultzatu zintuzten hirugarren kontzertu bat eskeintzera?

Hasieran ez genuen hirugarren kontzertua eskaintzeko inongo asmorik. Ni horren aldekoa nintzen, baina gainontzeko taldekideek ez zuten oso garbi ikusten. Hala ere, egunak aurrera egin ahala, gauzak okertzen zihoazela ikustean, iritziz aldatu zuten. 6000 pertsona inguru sarrerik gabe geratu zirela jakitean, larunbatean belodromo inguruan arazo asko sor zitezkeela aurreikusitua genuen, batez ere jende asko eta asko kolatzen saiatuko zirelako. Garbi zegoen jaialdi hau guri lagundu

zigun jendeari eskerrak emateko izan behar zuela. Horregatik giro bikain hori oztopatu zezakeen edozein arrisku sahiesteko asmoz beste kontzertu bat ematea erabaki genuen.

Beste euskal talderen batek lortu ahal dezake halako ikusmira?

Oso baldintza bereziak eman beharko lirateke. Gureak ere oso bereziak izan dira: Galindorekin izan ditugun "mobida" guztiak. Oiartzunera ere, Hitz Egin kontzertura, 15.000 pertsona joan ziren. Baldintza normaletan guk ez guke belodromoa beteko. Gainera, badakizu talde hau ez duzula gehiago zuzenean ikusiko eta jende askorentzat ez da azkenengo aldia, baizik eta lehenengoa. Gaur egun mota guztietako oso talde onak daude, baina badirudi ez dagoela karisma eta nortasun hori. Hala ere, etorkizunetan zergaitik ez?

Lehenbiziko bala, Hitz egin, Bertso-Hop, Hator hator, ... kantu mitikoak zuzenean entzuteko azken parada izan al zen igandekoa?

Igandeko kontzertua erabateko agurra izan zen. Gure bizitzaren zati oso garrantzitsu baten bukaera. Berriz ere entzaiatzen hasi behar genuela pentsatzeak, neke pixka bat eman zigun, baina jaialdiak joan diren bezala ikusita, pena ere ematen dizu agur esateak. Ate bat ixteko modu polit bat izan zen eta gure jarraitzaile eta lagun askori agur esateko modu egokiena. Zor genuen zerbait izan zen.

Agurtzane Solaberrieta


Metalgintza sektorean hitzarmena sinatu ezinik dabilta ADEGI eta sindikatuak

Greba hotsak ez dira ixildu metalgintza sektorean. Lan hitzarmena osatzerakoan patronala eta sindikatuak ez dira ados jartzen eta otsailaren 2an, 8an eta 9an egindako grebek jarraipena izan dezakete martxoan. Usurbilen ere grebak jarraipen zabala izan zuen sektore honetako lantegietan langileen %80 inguruk lana egiteari utzi baitzioten hiru egun horietan.

Metalgintzako sektorea da Hego Euskal Herrian behargin gehien biltzen dituen alorra. Gipuzkoan, adibidez, 50.000 langile inguruk lan egiten dute sektore horretan eta Usurbilen ere metalarekin lan egiten duten lantegi ugari daude. Urtarrilaren bukaeran metalgintzako hitzarmena negoziatzen, baina oraindik ez dira akordio batetara iritsi.

Behin baino gehiagotan bildu dira sindikatuak eta ADEGI (Gipuzkoako enpresarien elkarte) baina aldeak akordioa iristetik urrun daude. Sindikatuak itubak urtebeteko iraupena izatea proposatzen duten bitartean patronalak hitzarmenak iraupen luzeagoa izatea nahiago du.

Hala ere, lanorduen murrizketa da negoziazio kolektibo honen gakoa. Laupabost urtetan 35 orduko lan astea lortzea posible ikusten dute sindikatuak eta 2001. urtean lanaldia 40 ordu jaistea eskatzen dute. Patronalak, ordea, hitzarmena indarrean egongo den lau urteko aldi urte bakoitzean lanastea sei orduz murriztea proposatu die sindikatuari, baina hauek ez dute hori onartzen. Soldaten igoeretan ere ez dira ados jartzen. Sindika-



tuek %5,5eko igoera eskatzen dute eta ADEGIk %4,4ko igoera proposatu zuen otsailaren 6an egin zuten bileran.

Greba deialdiek jarraipen zabala izan zuten

Ezadostasun horren ondorioz eta patronalaren jarrera itxia salatuz, ELA eta LABek deituta hiru greba egun egin ziren metal arloan otsailean. Izan ere, CCOO eta UGTk patronalak proposatutako arekin ados egon arren greba egitearen aurka azaldu ziren Gipuzkoan. Sindikatuen arabera, otsailaren 2an 50 langiletik gorako enpresen %78k greba egin zuten, eta enpresa txikietan jarraipena %90eraino heldu zen. Otsailaren 8an eta 9an, berriz, langileen %80ak egin zuten bat ELA eta LABek egindako deialdiarekin. 50 beharginetatik gorako enpresetan %75ek egin zuten greba eta lantegi txikietan %90ek.

Usurbilen ere jarraipena antzekoa izan zen Bittor Iribar LABe-

ko ordezkariaren esanetan. "Lantegi txikietan greba egin zuten hala ez jakitea zaila da, baina herriko industrialdeetan dauden lantegien ateak itxita zauden egun horietan". Honela, Aramendi, Ucin, Cortes, Ventanas San Miguel eta Setabu lantegietan greba egin zen eta Luzuriagan oso boto gutxiengandik ez zen baietza atera.

Azken bilera otsailaren 27an egin zuten sindikatuak eta ADEGIk eta azken hauek ez zuten proposamen berririk aurkeztu. Hala ere, martxoaren 6an (ale hau kaleratzerako egin izango da bilera hau) beren azken eskaintza aurkeztuko zuela jakinarazi zien sindikatuari, baina beraien eskaintza sindikatuen eskariengandik oso urrun dagoela aditzera eman zien. Delako eskaintza zuzena izango ez balitz martxoaren 9an ordezkarien manifestazio bat eta martxoaren 19eta 24n greba egiteko asmoa azaldu dute ELA eta Lab sindikatuak.

Josu Aranberri

**GALARRA
GARRAIO**

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46



**TXIRIBOGA
TABERNA**

ntx k, k t k
t l t r k n n t u k

Ir zu k l , 3 T l. 3 37 13

Er diyo?



Ana Aizpurua

- **Autobus-gidaria**
- **Bi alaben ama**

Zorionak gizonei, Emakume Langilearen Egunean!

Oso ondo pasa genuen martxoaren 8an Usurbilen. Oso erakusketa polita osatu zen Udarregi Zaharreko erakusketa-aretoa herriko emakume batzuen arte-lanekin. Ederra da benetan dastatzea emakume sortzaileen lana; beren adimena eta ahalmenak. Hori bai, dena bertako "produktoekin" osatua, benetan atsegina. Izan ere, zertarako jo kanpora produktoen bila herrian baldin daditugu?

Ederra da, era berean, zer nolako erreztasuna dugun solasaldira, edo beste askok esango duten bezala, ez ixiltzeko. Berdin dio gaia; literatura, sindikalismoa, zinea, eta ez propio, beste askok pentsatuko duzuen bezala, kotileo edo txutxumutxuak. Azken hau ez da emakumearen patrimonioa, baizik eta perfil edo sozial berezia duen pertsonarena, gizon edo andere izan, horrek ez du axola.

Afaria ere zoragarri! 50 emakume inguru Patri jatetxean egun berezi bat ospatzen. Eta egunari amaiera ezinhobea emateko, Labriten emanaldia. Atsegina da herriko emakume sortzaileetarikoa, eta orain arte, musika munduan pixkanaka-pixkanaka bere lehen urratsak ematen ari den emakume bat gure artean izatea guretzat hain garrantzitsua den egun honetan, herriko gainontzeko emakumeekin batera martxoaren 8a ospatzen. Atal honetan sartzen ditugu gure gizonak, senarrak edota adiskideak.

Gure bizimoduaren %50a osatzen duten gizonezko horiei ZORIONAK eman nahi dizkiegu. Arrazoiak, dudarik gabe, asko izan daitezke, baina hona hemen, guretzat bederen, garrantzitsuenak; zorionak emakumea ulertzeagatik berdintasunean jardun behar dugula diogunean, etxean nahiz etxetik kanpo.

Pozgarria da eguneroko eginkizunetan, besteak beste, erosketak egiterako orduan, sukaldaritza edota etxeko lanetan lanak banatu behar direla inongo dudarik ez izatea. Edota ikasketak aukeratu edota emakumearentzat (noski, gizartean, tamalez, horrela ezarrita dagoelako) ezhoiko lanbide bat hautatzeko orduan laguntza izatea. Jarrera hauek guztiak, eguneroko bizitzan txikiak izan daitezkeen arren, denon artean gizartea eraldatzeko gai garela erakusten dute. Baina, horretarako, gizon-emakumeok proiektu berean mugiltzea ezinbestekoa dugu.

Oinarriak ja ezarrita daude, esate baterako; heziketa arloan, legedian, arauetan, seme-alaben arduradunen jokaeran, etab. Baina, ideietan eta sentimenduetan bat etortzea edo hobeto konpenetratzea geratzen zaigu. Oinarriak praktikara eraman behar ditugu. Gizarte osoak hori onartzen duenean, gizarte aurrerapen garrantzitsu bat lortua izango dugu.

**Zure publizitatea
hemen jarri nahi
baduzu deitu
943 36 03 21
telefonora!**



**ZUMET A
JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMET A MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-aranpasa eta pattraraz
- Itsaskientsalada hozber otrufazapozere
- Zapoatxangurr ozbeteriketaitasaki saltsaz
- Aspizunapatatapur e, ondoetapiklo piperrazharagisaltsetan
- Etxeko azkenburukoen dastapena
- Ogia eta kafea

Prezioa: 3800pta. (pertsoneko)

IGELTSERITZA

URDANTEI, C.B.

Mugikorra: 649435475
649435476

☎ 943 363370- 361439


Lehiaketa



Zer dago faltan, zer soberan?

Asmatzaileen artean Antxeta tabernan bi pertsonentzat afaria zozketatuko dugu

Aurreko argazkia



Erantzuna



Irabazlea

Joxe Mari Azpiroz

Saria

Tragoxka tabernan bi lagunentzat afaria

Esanak esan

Berria, beste bat

* Arkonadari gol **berri** bat sartu diote.

* Retegik tanto **berri** bat egin du.

Elhuyar hiztegiak **berri** hitzari buruz, besteak beste, honako adierak onartzen ditu: Egin berria, orain-oraingoa (nuevo, reciente, fresco).

- Eroritako etxea **berria** zen: duela gutxi egindakoa, alegia.

Ondatu edo urratu gabea.

- Arropa modaz kanpokoa daukazu, baina **berria** oraindik, ondatu gabea.

Aurreko zerbaiten ordezkoa:

- Zuzendari **berria** izendatu dute: lehen Joxe zen, orain, aldiz, Pello.

Azken aldi honetan, moda guztiz berria ari zaigu sartzen; indar-indarrean datorkiguna berau. **Beste bat** esan beharrean, **berri bat** esaten, batez ere, gertakizunei loturik: ***gol berria**,

***tanto berria, *stripu berria...**

Gaztelaniaz ere, horrelako esaldiak hain jatorrak direnik: un nuevo gol, un nuevo tanto, un nuevo accidente... eta horrelakoak esan beharrean.

Golak, tantoak, jokaldiak, stripuak... ez dira sartzen eta ez berritzen; gertatu egin ohi dira, eta kitto; beraz, **berri** hitzaren tokian **beste** erabili behar da: beste gol bat sartu du, beste tanto bat egin du, eta abar.

Inoiz biak gerta daitezke zuzenak, baina adiera ezberdinekin:


-Tratu berria egin diote (aurrekoa bertan behera utzi eta berri-berri bat egin).

- Beste tratu bat egin diote (lehengoaz gainera beste bat).

Bazter ditzagun esaldi **berri** kaltegarriak. Eman euskarari berea berezko esaldiak erabiliz.

* Okerrak edo desegokiak

LITERATURAREN TXOKOA



"101 gau" / J.M. Olaizola 'Txiliku' / Literatura 202 / 228 orri

Era guztietako gaiak eta osagaiak dauzka liburu pertsonal eta berezi honek: esaera zaharrak nahiz pasadizo xelebrea, mitologia klasikoa eta sineste berriak, botanika edo zoologia, han-hemen bildutako kantu eta poemak, inguruko nahiz urrutiko bitxikeriak, historia zein zientzia, sexua...

Edonondik ireki eta edonon laga litekeen obra da 101 gau, baina ohe-mahaiaren gainean utziz gero deitu egingo dizu, jakintzaz eta umorez ondutako magnetismo apal horrekin, beste ataltxo bat behinik irakur dezazun. Ezin jakin zenbat gau emango duzun liburu honen konpainian baina, bukatu eta gero ere, beste gau askotan irauko dizu seguruenik haren oropen gozoak.

Nongoa da J.M. Olaizola ?

Asmatzaileen artean liburu honen bi ale zozketatuko ditugu. Erantzunak Noaua! Kultur Elkartera bidali edo bertako postontzian utzi ditzazkeue.

A genda

MARTXOAK 12 astelehena

● **Euskal prozesu demokrati-koaren aldeko konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

OHARRAK

✍ **Irakasle espezializatuek klase partikularrak ematen dituzte** Usurbilen bertan. DBH, Batxilergoa, zientziak nahiz letrak. Esperientzia. Interesa duenak deitu 943 36 52 89 telefonora (Koro).

✍ **Neska bat behar da etxe-kolanak egin eta haurrak zaintzeko.** Deitu 943 37 29 38 telefonora (gauzez).

✍ **Rossignol markako snow board tabla salgai.** 152 zmk. Fijazioekin. 30.000 pzta. Telf. 943 36 51 80

✍ **Emakume batek** astelehene-
tik ostiralera ordu pare batez
lan egingo luke. Deitu 943 36
16 71 telefonora.

✍ **Neska eskaintzen da orduka etxeko lanak egiteko.** Aste-
bete goizez eta hurrengo
arratsaldez. Telf. 679258721.

✍ **Mahaspildegi elkartearen baz-
kide postua** salduko nuke.
Telf. 943 365231.

✍ **Duela 35 urte** "Señorita Mari-
txu" rekin ibiltzen genuen
eskolako entziklopedia esku-
ratu nahi nuke gero buelta-
tzekotan. Telf. 943 362865
(Maria Angeles).

✍ **Chow chow arrazako txaku-
rrak salgai.** Pedigriarekin.
Harremanetarako deitu 943
362072 telefonora.

IHESLARI POLITIKOEI BURUZKO INFORMAZIO ASTEA

☐ Astean zehar **panel informatiboak** jarriko dira Aitzagan.

☐ Astelehena, martxoaren 19an arratsaldeko 20.00etan **enkartelada Errotondan iheslarien egoera salatzen**.

☐ Asteazkena, martxoaren 21ean, arratsaldeko 19.30etan Udarregi Zaharrean, **hitzaldia:**

- **Jon Enparantza,** abokatua

- **Iratxe Sorzabal,** espulstaturia

- **Koldo Lizaso,** errefuxiatu ohia eta espulstaturia

- **Joxe Mari Arriaga,** errefuxiatu ohia eta espulstaturia

☐ Larunbatean, **bazkari herrikoa Xabier Miguel Ezkerra** errefuxiatu usurbildarrarekin. Autobusera eta bazkarira apuntatzeko azken eguna: martxoaren 21a, Aitzaga, Benta eta Zendoia tabernetan.

Badator korrika 12

Hori dela-eta korrika argazki zaharren erakusketa bat antolatu nahi genuke eta horretarako zuen laguntza ezinbestekoa dugu. Beraz, hasi bilatzen eta argazkirik topatuz gero deitu 943 372001 telefonora edo ekarri Etumeta euskalregira.

Aldez aurretik mila esker.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USU ILG H TZ KLINIK

EE N N E EZ-M SS NENNINGE
NT NI E N L UIZ E

K L N us , 2 I.C
Tlf 3 37 7

20170
USURBIL

Kalkos kopisteria

- ✍ Fotokopiak
- ✍ Fotokopiak koloretan
- ✍ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ✍ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ✍ Planoen kopiak (AO arte)
- ✍ Ordenadoreko lanak
- ✍ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- ✍ Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

AGINAGA



Aginaga, Telf: 943 36 67 10
Etxeko sagardoa dastagai urte osoan


Egin txotx!

herriko

Tolare

Sagardotegietan!

ILLUNBE



Txokoalde, Telf; 943 37 16 49
Sagardotegi eta jatetxeko menua egunero.

iruin



Zubieta, Telf; 943 36 12 29
Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita.

SAIZAR



Kalezar, Telf; 943 36 22 28
Igande gauetan eta astelehen eguerdian itxita.

URDAIRA



Aginaga, Telf; 943 37 26 91
Egunero irekita, igande gauetan izan ezik.